



Kirol instalazioen erabiltzaileentzat Araudi Orokorra eta instalazioen erabilera-araudia.

Aldaketaren hasierako onarpena: 2017ko ekainaren 17ko ohiko osoko bilkuran.

133zk BAO on argitalpena: 2017ko uztailaren 12an.

http://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2017/07/12/II-3276_eus.pdf

Informazio publikoko epe amaiera : 2017ko abuztuaren 28a.

Alegazioak: BAT ERE EZ.

177zk BAO on argitalpen osoa: 2017ko irailaren 17an.

http://www.bizkaia.eus/lehendakaritza/Bao_bob/2017/09/15/II-4206_eus.pdf

2017ko irailaren 17tik aurrera indarraldi mugatua (Azken xedapena).



Kirol instalazioen erabiltzaileentzat Araudi Orokorra eta instalazioen erabilera-araudia.

0- SARRERA

Durango Kirolak (DK oraindik aurrera) izaera juridikoa eta ondare propioa dituen Erakunde Autonomoa da. Erakundearen xede nagusia Durangoko herritar guztiek kirola egiteko aukera izan dezaten ahalbidetzea da; eta, horretarako, kirola osotasunean garatzea sustatzen du.

Araudi honen xedea Durangoko Udaleko kirol-instalazioen erabilera arautzea da. Instalazio horietarako sarbidea edozein pertsonak izango du, betiere, araudi honi atxikita erabiltzen baditu, eta, dagokion kasuetan, dagokion tasa edo prezio publikoak ordaintzen baditu. Era berean, kirol-instalazioen erabilera eta disciplina araudia ere arautu gura du.

DK-k instalazioak gobernatzeko eta administratzeko ahala dauka, tartean, erabiltzeko, programatzeko, ikuskatzeko eta kudeatzeko mugapenak ezartzeko ahala. DK-k beretzat gordetzen du araudi hau argitzeko, aldatzeko edo garatzeko xedapenak edo ebazpenak emateko eskubidea, eta beroriek eta araudi espezifikoak (ordutegiak, tasak, etab.) jendearen eskura egongo dira.

Udalak ezarriko ditu kirol instalazioetan ematen diren zerbitzuen inguruko eta instalazioen erabileraren gaineko tasa eta/edo prezio publikoak. Udalbatzak onespena eman aurretik, Zuzendaritzaren Batzordean onartu beharko dira, tasen eta prezio publikoen ordenantza fiskala aintzat hartuta.

DK-k kirol-instalazio hauek dauzka bere eskumenen barnean:

- Tabirako kirol gunea: kanpoko igerilekuak, kiroldegia, futbol-zelaiak.
- Landakoko kirol gunea: Landako I, Landako II eta Arripauseta (futbol 7-rako zelaia, futbol-errugbi zelaia, padel-pistak eta tenis-pistak)
- Ezkurdi Jai-Alai Frontoia.
- San Fausto Frontoia.

Araudi hau, orobat, etorkizunean Erakunde Autonomoaren eskumenekoak bilakatzen diren kirol-instalazioetan aplikatuko da.

1. ERABILTZAILEAK

Erabiltzaileentzat hartuko dira udalaren kirol-instalazioak erabiltzen dituzten edo kirol-jardueraren edo jarduera fisikoren bat praktikatzen duten pertsonak.

1.1 ERABILTZAILE MOTAK

Hiru erabiltzaile mota daude:

NORBANAKO ERABILTZAILEAK, hauexek:

- Igerilekuetako instalazioetan abonatuta dauden pertsonak
- Jarduera edo ikastaroetan izena emanda dauden pertsonak
- instalazioak erabili, alokatu, edo tarteka jarduerak egiten dituzten pertsonak, kasuan kasuko prezio publikoa ordainduta.



Kirol instalazioen erabiltzaileentzat Araudi Orokorra eta instalazioen erabilera-araudia.

TALDEAK. Izaera hau dute kirol-jarduerak egiteko, kirol-instalazioak taldeka erabiltzen dituzten erabiltzaileek. Honako talde mota hauek bereizten dira:

- **Herriko klubak eta kirol elkarteak.** Durangoko Udaleko Elkarteen Erregistroan izaera horrekin izena emanda daudenak, kirol lehiaketetan parte hartu dezakete.
- **Ikastetxeak.** Alde batetik, DK-k garatzen dituen kirol jardueretan eta programetan parte hartzen duten ikastetxe publiko nahiz pribatuak; eta beste alde batetik, instalazioak librekin erabiltzen dituzten ikastetxeak.

JENDEA, ORO HAR. DK-ko instalazioetan burutzen diren kirol ikuskizunak, entrenamenduak eta lehiaketak ikustera doazen pertsonak, baita kirolariei laguntzera doazenak eta bisitariak ere.

1.2. ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

Kirol-instalazioen erabilerari dagokionez, honako **eskubide hauek** izango dituzte erabiltzaileek:

1. DK-ko informazioa jasotzea (instalazioak, ordutegiak, prezioak, jarduerak, etab.)
2. DK-ko langileengandik arreta eta trataera egokia jasotzeko eskubidea. Edozein unetan, instalazioen zerbitzuetako edozein langile edo arduraduni identifikazioa eskatzeko eskubidea, egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak edo iradokizunak egiteko.
3. Alokatu edo gorde zituzten kirol- instalazioak erabiltzeko edo izena emanda zuten jardueretan parte hartzeko eskubidea, gordetako ordutegian eta aldian, betiere hori eragozten duen programaturako beste jarduerarik egiten ari ez badira, DK-k baimendutako kirol- ekitaldirik egiten ari ez badira, edo eguraldia txarraren edo konpondu ezin den matxuraren baten eraginez, ezinezkoa ez bada.
4. Izena emanda daukan jarduera egiteko eskubidea, betiere izen-emateak aurrez ezarritako gutxieneko kopurura heltzen badira.
5. Zerbitzuak zerbitzuen kartan hartutako konpromisoen arabera eman daitezela
6. Erabiltzaileari ez dagozkion arrazoiengatik, ordutegiarekin nahasteren bat badago, hartutako ordua atzeratzea -ordurako ezer programaturik ez badago- edo, libre badago, beste instalazio batera aldatzea aukera dezakete.
7. Abonatuak eta erabiltzaileek kontratatutako zerbitzua itzultzea eskatu ahal izango dute, gertaeraren bat jazo edo zerbitzua bertan behera geratu denean (altzarietan edo instalazioetan matxurak). Ez da itzulketarik egingo eguraldiaren edo ezinbesteko arrazoiengatik gertatu denean (greba legala barne).
8. Uraren kalitatearen neurketari buruzko datuen berri (ph-a, kloromaila eta tenperatura) edukitzeko eskubidea, jendaurrean egon behar baitute.
9. Instalazioak erreserbatzeko eskubidea, ahal dela, internetez (www.durangokirolak.net) edo tramiteak egiteko Landako II kiroldegiko sarreran dagoen kutxazainean.
10. Edozein erreklamazio, zalantza, kexa edo iradokizun idatziz eta askatasun osoz aurkezteko, eta gehienez hogeita hamar eguneko epean erantzuna jasotzeko eskubidea.
11. Datu pertsonalen konfidentziasuna eta pribatasuna bermatuta edukitzeko eskubidea, indarrean dagoen legeari jarraiki.
12. DK-ko Zerbitzuen Karta eskura edukitzeko eskubidea.



Kirol instalazioen erabiltzaileentzat Araudi Orokorra eta instalazioen erabilera-araudia.

Kirol-instalazioen erabiltzaile guztiek honako **betebehar hauek** dituzte:

1. Instalazioak eta zerbitzuak araudi honetan zehaztutakoari eta araudia garatzen duten xedapenei (instalazio bakoitzaren araudi espezifikoa, etab.) eta DK-ko langileen jarraibideei lotuta erabiltzea.
2. Instalazioko beste erabiltzaileak, jendea eta langileak errespetuz tratatzea, horrela, langileen lana errazteko.
3. Instalazioa keta elementu materialak egoki erabiltzea, eta berauek garbi eta egoera onean mantentzen laguntzea.
4. DK-ko langileren batek hala eskatuz gero, nork bere burua aurkeztea izen-abizenekin.
5. Jarduera bakoitzari dagozkion kirol- jantziak eta oinetako egokiak erabiltzea (kanpoan erabiltzen dena eta barruan erabiltzen dena bereiziz).
6. Instalazioen funtzionamendurako ordutegiak errespetatzea, eta DK-ko langileei jarraibideei jaramon egitea beti.
7. Arduragabekeriak edo atzipez edozein kalte eraginez gero, horren arduradunak edo arduradunek ordaindu beharko dute kaltea. Elkarrekin eta klubaren kasuan, eurak izango dira erantzuleak.
8. Prezio publikoak ordaintzea, eta DK-ri jakinaraztea helbidea, telefonoa, etab. aldatuz gero. Horretarako hainbat bitarteko daude (presentziala, internet, etab.)
9. Instalazio guzti-guztien betebehar komuna keta partikularrak betetzea, etab aita araudi hau sorburu duten bestelako arauak ere.

1.3. ERABILTZAILEEN ERREGIMENA

1. Oro har, abonua hainbat motatakoak izan daitezke (familiarak, banakoak, arruntak, konbinatuak, urtekoak, hiruhilabetekoak, etab.), eta bakoitzaren onurak, ezaugarriak eta prestazioak dagokien zerga-ordenantzan arautuko dira beren beregi.
2. Instalazioetan sartzeko beharrezkoa izango da hatz-marka, eta ezohiko kasuetan (hatz-markaren kalitate maila baxua / hatz-marka eman gura ez izatea) dagokion txartela eman beharko da. Txartelaren kostua DK-ko ordenantza fiskalean ezarritakoa izango da. Hatz-marka kalitate txarrekoa duten erabiltzaileek lehen txartela dohainik eskuratuko dute, eta hurrengoak ordaindu beharko dituzte.
3. Txartela norbanakoarena eta besterenezina da, eta titularra ez den beste inork erabiliz gero, zigor erregimena aplikatuko da.
4. Abonuaren prezio publikoa, ahal dela, banku-heblideratzearen bidez ordainduko da. Ez badago, tramiteentzako kutxazainaren bidez ordainduko da, webaren bidezko ordaintzen aukeran, edo salbuespen gisa, DK-ko harreraren.
5. Abonatu izateari utzi nahi dion pertsonak, bide hauek erabil ditzake horren berri emateko: tramiteentzako kutxazaina, webgunea, eta, DK-ko harrera (bertaratuta, telefonoz edo



Kirol instalazioen erabiltzaileentzat Araudi Orokorra eta instalazioen erabilera-araudia.

whatsapp bidez), jakinarazpena abonu-aldia amaitu aurreko hilabeteko 26.eguna baino lehenago egin behar da.

6. Abonu-kuotari dagozkion eta itzultzen diren ordainagiriak, adierazitako moduan -ordaindu bakoa giria berriro pasatzea, txartelez edo esku-diruz, harreran- eta epearen barruan ordaindu beharko dira. Ezarritako epearen barruan ordaintzen ez badira, pertsona hori baja izango da berehala, eta udaleko ordenantza fiskaletan eta diru-bilketako araudian zehaztutako eran kobratuko da.

1.4. KOLEKTIBOAK ETA TALDE ANTOLATUAK

1. Legez eraturata dauden kirol-elkarteak eta klubak izango dira, DKren aurrean, lehiaketa-kirolerako balio duten ordezkari bakarrak.
2. Aurreko puntua betetzeko, kirol- elkarte edo klub bat legez eraturata dagoela hartuko da beraren estatutuak Eusko Jaurlaritzaren Kiroletarako Zuzendaritza Nagusiak onartu eta Udalaren Kirol Elkarte eta Kluben erregistroan izena emanda duenean.
3. Egoitza Durangon duten eta aurreko baldintzak betetzen dituzten klubek DKren kirol instalazioak eta instalazio osagarriak (aldagelak, bilegiak, etab.) erabili ahalko dituzte, euren jarduerak garatzeko, aurrez zehaztutako ordutegi eta egunetan, eta ezer ordaindu barik. Erabiltzen hasi baino 20 minutu lehenago sartu ahali zango da instalazioetan, eta jarduera amaitu eta handik 20 minutura utzi beharko dira, betiere, instalazioen ordutegiaren barruan.
4. Instalazioak erabiltzeko ordutegiaren banaketa DK-k egingo du klub interesatuen beharrezkoak entzun ondoren, eta kirol-denboraldi baterako balioa izango dute, salbuespenezko egoerek aldaketaren bat eskatu ezean.
5. Euren lehiaketa-partidak jokatzeko zelaiak eta pistak eskatzen dituzten klub federatu guztiek derrigor eman beharko dute DKn euren lehiaketa- egutegiaren kopia bat.
6. Instalazioak erabiltzeko lagapena dagokion aldebiko hitzarmenaren bidez egingo da.
7. Utzitako instalazioa DKri jakinarazi gabe hiru egun ez erabiltzen ez duten taldeei hura erabiltzeko baimena kenduko zaie (ezinbesteko arrazoiak, eguraldi arazoak, etab. denean izan ezik). Baliogabetze hori **Presidente egiten duen pertsonaren** kompetentzia izango da eta Errektore Batzordeari jakinaraziko dio.
8. DK-k instalazio eta dependentzien erabilera-baimenak eten ahal izango ditu haren iritziz lehentasuna duten beste erabilera batzuk emateko, betiere bidezkoak badira, eta horretarako, aldez aurretik jakinarazpena helaraziko die. Zigor hau, presidentearen kompetentzia izango da, eta Errektore Batzordeari jakinaraziko dio.
9. Aldez aurretik erabiltzeko eskaera eta erreserba eginda, bileretarako, hitzaldietarako, etabarrerako DK-k prestatutako espazioak erabili ahal izango dituzte klubek.
10. Lehiaketa ofizialak egiteko, kirol- erakundeek denboraldiaren egutegia igorri beharko dute idatziz, eta, gutxienez hamabost egun lehenago, lehiaketetan egingo diren jarduerak eta ordutegiak adieraziko dira.
11. Entrenamendu eta lehiaketa ofizialetako ordutegiak kirol- instalazioetako ordutegi orokorrei egokitu beharko zaizkie. Instalazio bakoitzerako onartutako egutegian zehaztutakoak.

Comentario [t1]: presidentearen



Kirol instalazioen erabiltzaileentzat Araudi Orokorra eta instalazioen erabilera-araudia.

12. Kirol-elkarte eta klubek antolatutako kirol-ekitaldien erantzukizun zibila, entrenamendu-saioak barne, euren izango da. orretarako, dagokien erantzukizun zibileko poliza kontratatu behar dute, eta denboraldiaren hasieran polizen kopia eman behar diote DK-ri.
13. Instalazioetan lehiaketak eta ikuskizunak antolatzen direnean, ekitaldi publikoen erantzukizuna erakunde antolatzaileena izango da. Instalazioak erabiltzean sortutako kalteak edo hausturak erabilera-erreserba egin zuen pertsonak edo erakundeak ordaindu beharko ditu. Lehiaketa ofizialetan, dagokion federazioari eta klubari emango zaie kalteen berri, eta bertako kluba izango da aurkako taldeek sortutako kalteen erantzule subsidiarioa.
14. Kirol-ekitaldietara sartzeko sarrera kobratzen duten kirol-erakundeek horren berri eman beharko diote aurretik DKri. Takilak erabili ahal izango dituzte (baleude); bestalde, euren ardurapekoak izango dira bai langile kobratzaileak bai ekitaldia egokiro garatzeko kontrola. Horrelako egoeretan, ardura horren barruan sartuko dira kantxa, harmailak, sarrerak, markagailua eta esparru guztien garbiketa.

2. PREZIO PUBLIKOAK.

Tasa eta prezio publikoak DKren Zuzendaritza Batzordeak xedatutakoaren arabera izango dira eta Durangoko Udalbatzak ezarriko ditu.

2.1. KOBRATZEA

1. Tasak eta prezio publikoak DKren administrazioak kobratu eta administratuko ditu. Kuotak abonarekin indarraldia, ikastaroa edo jarduera hasi aurretik ordainduko dira.
2. Ordainketa **helbideratze bidez egingo da ahal dela**. Kontu zenbakia DK-ko harreraren, emailez, telefonoz edo whatsapp-ez eman ahalko da, eta gero ordainagiriak webgunearen bidez edo tramiteen kuxazainaren bidez helbideratu ahalko dira.
3. Helbideratuta ez balego, ordaintzeko beste bide batzuk egongo dira: tramiteen kuxazainaren bidez ordaindu daiteke (txartelarekin edo eskudiruz); webgunearen bidez ere bai (txartelarekin); eta salbuespen eran, DK-ko harreraren (txartelarekin edo eskudiruz).
4. Adin txikiko erabiltzaileen kasuan, prezioak gurasoek edo legezko tutoreek ordaindu beharko dituzte.
5. Abonua eta helbideratutako jarduerak automatikoki berrituko dira, titularrak ez badau baja ematen aurreko hileko 26.eguna baino lehenago. Baja emateko hainbat bide daude: webgunea, tramiteen kuxazaina, eta, salbuespen eran, DK-ko harrera (aurrez aurre, telefono bidez edo whatsapp bidez).
6. Lehiaketa federatuak ez direnean, instalazioak erabili nahi dituzten taldeek dagokien prezio publikoa ordaindu beharko dute.

2.2. ITZULKETAK:

1. Kobratutako zenbatekoak itzuliko dira edo ordaintzeke daudenak ezeztatuko dira, jarduera ezin izan denean egin DKri egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik. Aitzitik, erabiltzaileak erabaki badu izena emandako jardueran parte ez hartzea, ez du ordaindutakoa berreskuratzerik izango.



Kirol instalazioen erabiltzaileentzat Araudi Orokorra eta instalazioen erabilera-araudia.

2. Medikuek ziurtatutako osasun-arazoengatik erabiltzaileak ezin badu izena emandako jardueran parte hartu, eta hiruhileko edo urteko abonatua bada, jarduera hori berreskuratu ahal izango du, medikuaren alta jaso eta, gehienez, hiru hilabeteko epean.
3. Halaber, Zuzendaritza Batzordeak aurretiaz zehaztu ahalko ditu arrazoi objektiboak jarduera berreskuratzeko, betiere, hiru hilabeteen barruan ematen bada, behar bezala arrazoituta.

2.3. ERRESERBAK:

1. Erreserbak egiteko hainbat modu daude:
 - a. DKren webgunearen bidez, betiere, DK-ko datu basean izena emanda egonez gero.
 - b. Tramiteak egiteko kutzazainaren bidez.
 - c. DK-ko harreran.
2. Gehienez jarduera baino 30 egun arinago egin ahalko dira erreserbak. Erreserba bakoitzean gehienez 2 ordu eskatu ahalko dira. DK-k erreserbak gehiago mugatu ahalko ditu, ikusten badu arriskua egon daitekeela erabiltzaile gutxi batzuk instalazioak libre dauden ordu guztiak hartzeko. arriskua ikusten bada.
3. Erreserbak behin betikotzat joko dira, eta ez da aldaketarik ez itzulketarik onartuko.
4. Eguraldi arazoak tarteko pistak eta bestelako instalazioak kaltetzen badira eta ezin bada kirol jarduera ohiko baldintzetan burutu, interesatuak egunean bertan eskatu ahalko die egun aldaketa instalazioko edo harrerako langileei. Mantenu lanetako langileek egiaztatuko dute instalazioak egoera txarrean daudela, eta harrerako langileek beste data batzuk proposatuko dituzte. Aldez aurreko eskaera gabe, ez da aldaketarik egingo.

3. KIROL IKASTAROAK ETA KANPAINAK

1. Kirol-jarduera sustatzeko, kiroleko ikastaroak eta kanpainak antolatuko ditu urtero DK-k, eta haien eskaintza herritar guztiei zuzendurikoa izango da.
2. Erabiltzaileen gogobetetasuna lortzea eta kirola ahalik eta gehien bultzatzea da ikastaro eta kanpaina horien funtsezko helburua.
3. Oro har, ikastaroak urte osoan izango dira, eta ahal den heinean, eskaeraren eta urtaroaren arabera izango dira.
4. Ikastaroetan, kanpainetan eta lehiaketetan parte hartzeko, gehieneko eta gutxieneko pertsona kopurua eskatuko da. Ezarritako gutxieneko kopurua gainditzen ez bada, ez dira egingo.
5. Plaza hutsak baldin badaude, edozein unetan eman ahal izango da izena, eta jarduerak dirauen bitartean iraungo du hark ere. Baten batek baja izan nahi badu, aurreko hileko 26.eguna baino lehenago egin beharko du (azken eguna, aurreko hileko 25a)
6. Prezio Publikoa ez ordaintzeak jardueran berehala baja izatea ekarriko du, eta beste jardueraren batean izena ematen badu, zorretan duen zenbatekoa ordaindu beharko du aldez aurretik.
7. DK-k mediku-azterketa egitea gomendatzen du erabiltzaileak kirol jarduerarako gai direla ziurtatzeko, eta edozein erabiltzailerik eska diezaioke hori kirol-jarduerari ekin aurretik.



Kirol instalazioen erabiltzaileentzat Araudi Orokorra eta instalazioen erabilera-araudia.

4. INSTALAZIOETARA SARTZEKO ETA BERTAN IBILTZEKO ARAUAK

1. Instalazioetara sartzeko, hatz-marka edo DK-k emandako txartel pertsonala erabiliko da, edota, kasuaren arabera, prezio publikoz ordaindutako sarrera txartelarekin.
2. Ez dira DKren erantzukizunpekoak takiletan edo aldageletan utzitako gauzak; izan ere, gauzak gordetzea ez dago DKren kontratuaren barruan.
3. Pertsoneri edo ondasunei eragindako edozein kalteren erantzukizuna kaltea eragin duen pertsona edo erakundearena izango da soilik.
4. DK-k badu Erantzukizun Zibileko poliza, eta poliza horrek instalazio guztietan kirola egitearen ondorioz sor litezkeen kalteak hartzen ditu barnean; betiere kaltearen eta zerbitzuaren ohiz kanpoko funtzionamenduaren artean kausa-efektu erlaziorik baldin badago.
5. Instalazioak erabiltzeko, kirol-jantziak eraman beharko dira beti, instalazio bakoitzaren erabilerari egokitutakoak.
6. Ikastaro/jardueretarako lehentasun ordena hau izango da:
 - a. Izena emandako taldean tokia izango du, betiere, jarduera hasi baino 5 minutu lehenago agertzen bada.
 - b. Probatzera datozenek ez dute lehentasunik izango.
7. Aldageletan ezin da arropa edo oinetarik utzi, beste erabiltzaile batzuk erabiltzea oztopa dezaketelako. Gauzak uzteko takilak daude.
8. Takilak soilik erabili daitezke kirol-jarduerak irauten duen artean eta erabiltzailea instalazioetan dagoenean. Jarduera amaitutakoan, takilak hutsik geratu behar du. Hala ez balitz, zabaldu egingo da eta bertako objektuak gehienez 15 egunez jasota egongo dira horretarako egokitutako toki baten.
9. Instalazioen barruan ezin da piparik, txiklerik, gozokirik ezta bestelako jakirik jan, horretarako seinaleztatuta dauden guneeetan izan ezik (ikus i eranskina).
10. Ezin da kristalezko objekturik sartu instalazioetara.
11. Instalazioetan ezin da erre (apirilaren 7ko 1/2016 Legea, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa) (ikus i eranskina).
12. Ezin da alkoholik edan ezta saldu, legeak ezarritako salbuespenetan izan ezik (apirilaren 7ko 1/2016 Legea, Adikzioen eta Droga Mendekotasunen gaineko Arreta Integralari buruzkoa) (ikus i eranskina).
13. Ezin da bizikletaz, patinearekin edo patinetean ibili instalazioetan, horretarako programatutako jardueretan izan ezik.
14. Erabiltzaileak ezingo dira aldageletatik kanpo erantzi. Arropa aldaketak talde edo jarduera bakoitzari egokitutako aldageletan egin beharko dira.
15. Ezin da beste sexuarentzako bereizitako lekuetara sartu. 7 urtetik beherako umeak dira salbuespena; beste sexuarentzat egokitutako aldageletara joan daitezke, heldu batekin.
16. Transexualei aukera emango zaie nahi duten aldakekua eta komuna erabiltzeko.
17. Kirol elkarte eta klubek kartelak jarri ahalko dituzte horretarako lehiaketa guneeetan egokitutako guneeetan. Kartelak jarri ahal izateko, DK-k baimena eman beharko die, eta espazioak proportzotasun-irizpideen arabera banatuko dira.



Kirol instalazioen erabiltzaileentzat Araudi Orokorra eta instalazioen erabilera-araudia.

18. Oro har, instalazioen barruan ezin dira pertsonak, instalazioak edo jarduerak filmatu, grabatu edo haien argazkirik egin DKren baimenik gabe. Eginez gero, zigor oso larriari dagokien disziplina-araudia aplikatuko da. Delitu zantzuak badaude, polizia emango zaio gertatutakoaren berri.
19. Beren beregi debekatuta dago:
 - a. Kirol-ikuskizunetan, indarkeria, bazterkeria, sexismoa, etab. sustatzen duten pankartak, ikurrak, enblema edo esaldiak erakustea.
 - b. Kirol-ikuskizunak egiten ari diren instalazioetan edozein arma mota (agintaritzaren agenteek euren zeregina betetzeko -jarduean badaude- eta bizkartzainek euren zeregina betetzeko -betiere jardunean badaude- daramatzatenak izan ezik), edo jaurtitzeko objekturik sartzea.
 - c. Bengalak edo artifiziozko suak sartzea.
20. Aldagelen erabilerari dagokionez, 16 urtetik beherakoek osatutako talde antolatua eurekin datozen baimenduriko pertsona helduekin sartuko dira aldageletan (irakaslea, entrenatzailea edo begiralea). Erabiltzaileak arropa aldatzeko eta garbitzeko behar-beharrezko denboran baino ez dira egongo (gehienez 20 minutu).
21. Ezin da instalazioa zikintzen sartu (lokaztutako oinetakoak...).
22. Aldageletan ezin da kirol jantzirik garbitu.
23. Ezin da bizarra kendu, depilatu, zorriak kendu, exfoliatu, manikura egin, pedikura egin, edo antzerako jarduerak burutu.
24. Zakarrontziak derrigor erabili behar dira.
25. Portaera bandalikoek edo araudi hau urratzeak dagokien zigorra eragingo dute, eta zigorra banako erantzuleari zein taldeari ezarriko zaio. Horrez gain, eragindako kalteen ondorioz sortutako gastuak ere ordaindu beharko dituzte.

INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ARAU ESPEZIFIKOAK.

5.1. IGERILEKU ESTALIAK (Landako II).

1. Instalazio hauek herritarren uretako jarduera fisikorako eta jostaketarako dira, bai eta igeri egitem ikasteko eta igeriketa hobetzeko ere. Era berean, espazioak (kaleak edo igerilekua guztia) eta ordutegiak kirol-kluben esku egongo dira, euren jarduera espezifikotan erabiltzeko.
2. DK-k ez du erantzukizunik hartzen erabiltzaileek igeri egiten ez dakitelako edo beharrezko zuhurtziaz jokatzeko ez dutelako igerilekuetan istripurik badute. Horregatik, debekatuta dago 12 urtetik beherakoak instalazioetan sartzea haren arduradun izango den adin nagusikoren batek laguntzen ez baditu (salbuespen dira, DKak berak antolatutako programak).
3. DK-k igerilekuko kaleen banaketa programatuko du, eta programa hori leku ikusgarrian ipiniko du, bertan egongo diren jarduerak errespetatuz: bainu askea, ikastaro eta jarduerak, eta klub programak.
4. Hidromasajeko gunea erabiltzeko arauak bertara sartu aurretik egongo dira ikusgai.



Kirol instalazioen erabiltzaileentzat Araudi Orokorra eta instalazioen erabilera-araudia.

5. Irisgarritasun arazoak dituzten pertsonak igerileku klimatizatua erabili ahal izateko elementuak egongo dira. Ahal dela, ekipamenduko edo eraikuntzako elementuak kenduko dira, gaitasun desberdinak dituzten pertsonen instalazioetara sartzeara eragozten edo oztopatzen badie.
6. Igerilekua jendearentzat zabalik dagoen orduetan, **sorosle, behar bezala titulatuak**, egongo dira.
7. Igerilekuan gehienez egongo den jende kopurua indarrean dagoen legeriak zehazten duena izango da, eta espazio horretan bertan jarriko da ikusgai.
8. Uretara sartzeko derrigorrezkoa da,
 - a. Lehenago dutxatzea.
 - b. Uretako txanoa erabiltzea.
 - c. Txankletak edo bainurako oinetakoak erabiltzea. Bertan uzteko jarrita dauden baldetan utzi beharko dira.
9. Erabiltzaileek erabat debekatuta daukate bainu-gunera kaleko arroparekin edo oinetakoekin sartzeara. Instalazioko zerbituzetako langileak bertan egotea beharrezko denean, plastikozko estalkiekin jassiko dituzte kaleko oinetakoak.
10. Soroslea da igerilekuko arduraduna, eta une oro errespetua zor zaio. Era berean, errespetatu egin behar dira megafoniaz egiten diren oharrak, igeriketa-norantza eta DK-k onetsitako kale banaketa, instalazioa ixteko ordua, etab.
11. Ezin da igerilekuaren "hondartzatik" korrika egin, gainerako erabiltzaileentzako arriskutsu edo desatsegin diren jolasetan jardun, kortxeretan eseri edo eurak ebatu, eta irteerako plataformetatik salto egin.
12. **Materialen bat, bere kiroletako praktikarako desiratzen duten erabiltzaileek**, sorosleari eskatu behar izango dute eta, **behin bere erabilera bukatuta**, emango du eta bere lekuan utziko du. **Norbanakoentzako** hegatsak eta palak (**izaera pertsonaleko**), soilik erabili ahal izango dira "kale materialarekin" prestatutako kaleetan.
13. Animaliak ezin dira bainurako gunean sartu. Salbuespena ikusmen urritasuna duten pertsonak dira; itsu-txakurrekin sartu ahalko dira, baina txakurrak ezingo dira uretan sartu.
14. Ezin da buruz salto egin.
15. Ezin dira bainurako gunera sartu ukitze zuzenarekin edo zeharkakoarekin erraz kutsatzen diren gaixotasunak dituzten pertsonak.

Comentario [t2]: Hobeto: "behar bezala titulatuak sorosleak"
Bestela, zuk idatzitako egiturarekin, "sorosleak" izan beharko litzateke. Kasu bera eduki behar dute (amaierako AK) izenak (sorosleak) eta koma artean daukan azalpenak (behar bezala titulatuak)

Comentario [t3]: Hobeto: "euren kirola praktikatzeko materialen bat gura duten erabiltzaileek" (desiratu euskaraz ez da hain ohikoa horrelako kontuetarako. Gehiago desioa eta pasioa adierazteko)

Comentario [t4]: Erabili eta gero,

5.2. UDAKO IGERILEKUAK (Tabira)

1. Instalazio honetan estalitako igerilekuen arau berak aplikatuko dira.
2. Igerilekuak noiz zabalduko diren DK-ko Zuzendaritza Batzordeak erabakiko du.
3. Eguraldi txarra egiten badu, ez da sarreraren dirua itzuliko.
4. DK-ko abonatuak ez diren pertsonak banakako sarrera edo bonua ordaindu beharko dute.
5. Igerilekuan gehienez egon ahalko den pertsona kopurua jarduera lizentzian dago ezarrita.
6. Instalazioetan begirune handiz tratatu beharko dira gainerako erabiltzaileak. Eskailerak dira igerilekura sartzeko eta ateratzeko leku logikoak. Gune verdean ezingo da jolastu baloiarekin, eta ezingo da pelotan, paletan, ur-puxikekin edo antzeko jolasetan aritu; izan



Kirol instalazioen erabiltzaileentzat Araudi Orokorra eta instalazioen erabilera-araudia.

ere, gainerako erabiltzaileei enbarazua eta instalazioen mantentze orokorrari kaltea eragin diezaioke.

7. Prestatutako gunean jolastea baimenduta dago.

Comentario [t5]: Jolaserako egokitutako guneetan jolastu daiteke

5.3. FITNESS GELA, SPINING GELA ETA BESTE KIROL ARETO GUZTIAK

1. Areto hauetara sartu ahalko dira aurretik bertan egiten diren jardueretan izena eman duten eta prezio publikoa ordaindu duten pertsonak.
2. Kiroletako oinetako eta jantziekin solik sartu ahal izango da, eta ez dira kalean erabilitako arropak izango.
3. 16 urtetik beherakoak ezingo dira fitness eta spinning geletara sartu. 16 eta 18 urte artekoak sartu ahalko dira, gurasoen edo tutore legalaren baimenarekin.
4. Materiala eta ekipamendua erabilitakoan, gauza bakoitza dagokion lekuan eta lehen egondako egoeran utzi beharko da (pesak, diskoak, barrak, eta aretoko bestelako materiala).
5. Fitness aretoko langile teknikoek aholkuak emango dituzte eta banan-banako programak diseinatuko dituzte hala eskatzen duten eta dagokien kuota ordaintzen duten pertsonen, horretarako zehaztu diren ordutegietan.
6. Toaila erabili behar da fitness aretoko makinak eta spinningeko bizikletak erabiltzerakoan. Amaitzerakoan, makinak eta bizikletak garbitu behar dira.

5.4. KIROLDEGIETAKO PISTAK.

1. Instalaziora sartzeko, ezinbestekoa da kiroletako jantzi eta oinetako egokiak eramatera, entrenatzaileek eta klubeko beste pertsonen ere bai.
2. Kontroleko langileek adieraziko dute zein aldagela erabiliko den. Taldeek taldeentzako aldagelak erabiliko dituzte.
3. Instalazioak erreserbatzeko eta erabiltzeko araudi honetan xedatzen dena beteko da.

5.5. BELAR ARTIFIZIALEKO ZELAIK

Zelaietan erabili beharreko oinetakoek gomazko zola eta takoak eduki behar dituzte, ahal dela "tako askotakoak" eta, orpoaren aldean, gutxienez, lau tako.

5.6. TENIS ETA PADELEKO PISTAK, ETA FORNTOIAK

1. Pista hauetan honako jarduera hauek egingo dira: DK-k antolatutako ikastaroak, kanpainak eta lehiaketak, bertako klubuen lehiaketak eta edozein erabiltzailearen banakako jarduerak.
2. Derrigorrezkoa da kiroletako arropa eta oinetakoak erabiltzea.
3. Frontoietan lehenasuna izango dute pilota eta frontoiko modalitate eta jokoek. Hala ere, beste kirol-jarduera batzuetarako ere erabili ahal izango dira, instalazioek hartarako baldintzak betetzen badituzte. Bestelako jarduerak ere egin daitezke, aurrez baimena lortuz gero.
4. Erabiltzeko denbora kontratatu eta ordaindutakoa izango da. Ordaindutako denbora baino gehiago erabiltzen bada, hori ere ordaindu beharko da, indarrean dauden prezio publikoen tarifaren arabera.



Kirol instalazioen erabiltzaileentzat Araudi Orokorra eta instalazioen erabilera-araudia.

5.7. ROKODROMOA – BOULDERRA

1. Rokodromo/boulderra eskalada egiteko diseinaturiko kirol- instalazioa da, eta kirol-jarduera horretarako baino ezin izango da erabili
2. Eskalada ez dago arriskuetatik libre, eta prestakuntza fisiko eta tekniko espezifikokoak behar dira eskaladan jarduteko. Ondorioz, rokodromo-boulderra erabiltzeak, arrisku horiek borondatez bere gain hartzea dakarkio erabiltzaileari.
3. DK-k ez ditu bere gain hartuko rokodromo-boulderra gaizki erabiltzeagatik erabiltzaileek paira ditzaketen kalteak, edo erabiltzaileen prestakuntza fisiko eta tekniko ezagatik eragindakoak. Instalazioen egoera txarraren ondoriozko kalteak baino ez ditu bere gain hartuko.
4. Rokodromo-boulderrera sartzeko, honako baldintza hauek bete behar dira:
 - a. Sarrera mailakatu.
 - b. Mailarik izan ezean eta lehenengo aldiz alta ematerakoan, instalazioa, materialen erabilera eta segurtasun-neurriak ezagutu behar izango ditu. Rokodromoaren dinamizazioan diharduten pertsonak, aipaturiko azalpenak emateaz arduratuko dira.
 - c. "0" maila daukanak dinamizazio orduetan erabili ahalko du soilik rokodromoa-boulderra, astelehenetik ostiralera 10:00etatik 12:00etara eta 17:00etatik 21:00etara, begirale baten zaintzapean.
 - d. Eskalada gaitasunak lortu ahalko ditu erakundeak berak antolatutako hastapen ikastaro baten izena emanda.
 - e. Oso kasu berezietan izan ezik, gaitasuna behin baino ez da frogatu behar izango.
 - f. GAITASUN-KONTROLAK rokodromo-boulderraren dinamizatzaileek egingo dituzte aldizka, pertsona inetresatuek I. maila lortu nahi dutenean. Maila horrek, rokodromo-boulderra instalakuntza orduetan erabiltzeko baimena ematen du.
5. Rokodromo-boulderra erabiltzeko gutxienezko adina 18 urtekoa izango da. 14 eta 18 urte bitarteko gazteek gurasoek edo legezko tutoreak sinatutako baimen idatzia ekarri beharko dute, rokodromo-boulderra erabiltzeko. Adin horretakoek "0" mailara baino ezin izango dute joan, eta begiraleak bertan daudela baino ezingo dira egon. 14 urtetik beherakoak ere sartu ahalko dira, baina ez bakarrik; guraso edo tutore legalarekin, irakaslearekin, edo gurasoek/tutore legalak baimendutako pertsonarekin etorri beharko dira, eta heldu horrek rokodromoa-boulderra erabiltzeko gaitasuna izan behar du. "0" mailan baino ezingo dira egon, begiraleen ordutegian.
6. Rokodromo-boulderra erabiltzeko eskubidea duten pertsonak begiraleak ez dauden ordutegian ere erabili ahal izango dituzte instalazioak; aldezturik DKri eskaera egin beharko diote, eta honako baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - a. Boulderra erabiliko dute soil-soilik.
 - b. Ezin izango dira ibili rokodromo-boulderra eta eskalada-gunea sokaz bereizten dituen marra gorria baino harago.
 - c. Erabili beharko den materiala erabiltzaileak berak ekarri beharko du.
 - d. Jarduerarako abonurik ez duten pertsonak eta gaitasun-kontrola ez duten pertsonak boulderra begiralerik ez dagoen ordutegian erabili ahal izango dute, horretarako federazioaren lizentzia izaten badute. Aurreko puntuan adierazitako dena bete beharko dute.



Kirol instalazioen erabiltzaileentzat Araudi Orokorra eta instalazioen erabilera-araudia.

7. Rokodromoa bi lagunek erabiliko dute gutxienez, batek bestea segurtatzeko. Bakarrik eta segurtatu barik ibiltzeko leku bakarra beheko aldea izango da, marra gorria gainditu barik. Boulder gunea banaka erabili ahal izango da.
8. Aseguru guztiak lotu beharko dira mosketoiekin derrigor, eta ahalik eta segurtasun handienarekin egin beharko da.
9. Horman erabiltzeko beharrezko materiala honako hau izango da: arnesa, soka eta berez blokeatzen den galga-sistema. Derrigor eta behar bezala erabili behar da.
10. Eskalatzeko oinetakoak edo katu-oinak erabili behar dira derrigor. Era berean, rokodromoa eta boulderra dauden pistara sartzeko ere kirol-oinetakoak erabili behar dira..
11. Bikoteko bi kideek ezin izango dute aldi berean eskalatu. Hainbat bikotereren segurtasun-sokak ere ezin izango dute elkar gurutzatu.
12. Aseguruen eta bilguneen kasuan, xede horretarako material espezifikoak soilik erabili behar dira. Bide edo ibilbide batean instalatutako aseguru guzti-guztiak ipini beharko dira. Jaistekoak edo bilguneak ezin izango ditu eskalatzailerik batek baino gehiagok aldi berean erabili.
13. Eskaladaren teknika ondo menderatzen ez dutenei TOP ROPE moduan eskalatzea gomendatzen zaie, hau da, soka jaistekoan ipinita.
14. Ezin izango da inolaz ere lehenengo aseguruaren altuera gainditu sokaz segurtatua egon barik.
15. Erabat debekatuta dago jaistekoak dauden tokia baino gerago igotzea.
16. Derrigorrezkoa da aseguru automatiko edo erdiautomatikoko tresnak erabiltzea.
17. Rokodromo-boulderraren eremuan une horretan eskalatzeko ari direnak baino ezin dira egon.
18. Hormako elementuak ezin dira mugitu (presak aldatzea, markajeak...)
19. Erabiltzen ari ez den biderik ezin izango da gorde.
20. Rokodromoa, gehienez, 18 pertsonen erabilera ahal izango dute.
21. DK-k eskubidea du rokodromo-boulderra osorik edo zati bat kontrolak eta ikastaroak egiteko erreserbatzeko. Hala denean, ahalik eta aurrerapen handienarekin emango da horren berri.

6. ZIGOR ARAUBIDEA

1. Ez badira DK-ko instalazioak erabiltzeko baldintzak betetzen, DK-k zigorrak ezarri ahalko ditu, araudi honetan aurreikusitako moduan. Dena dela, zigorra izango da erakunde honek erabiliko duen azken neurria, DKren funtsezko helburua kirol-jarduera ezartzea eta garatzea baita.
2. Instalazioetako langileek behar bezalako portaera ez duten pertsonak ohartarazteko eta instalazioetatik kanporarazteko ahalmena dute, eta hori gertatzen denean instalazioan dagoen DK-ko arduradun gorenari jakinaraziko diote.
3. Instalazioen eta bertako ekipamenduaren eta DKren materialaren erabileraren ondorioz, ustekabean gerta litezkeen kalte pertsonalak ezin izango zaizkio ez DK, ez Udalari egotzi;



Kirol instalazioen erabiltzaileentzat Araudi Orokorra eta instalazioen erabilera-araudia.

haien arduradunen (baleude) erruz edo arduragabekiaz gertatzen denean edo instalazioen edo materialaren egoera txarraren ondoriozkoa denean izan ezik.

4. Bateragarriak dira zigorrak ezartzea eta DKren instalazioetan eragindako kalteengatik kalte-ordainak eskatzea.
5. Hutsegiteak mailakatzean, kontuan hartuko dira berrerortzea, asmoa eta instalazio publikoei eragindako kalteen intentsitatea.
6. DKren zuzendaritza organoak izango du hutsegite arinengatik zehapenak jartzeko eskumena, Erakundearen kudeatzaileak hala eskatuta. Ebazpenen berri emango zaio Zuzendaritza Batzordeari.
7. Hutsegite larri edo oso larriengatik zigor edo zehapenak, berriz, Udalaren Kirol Erakundearen Gobernu Batzordearen eskumena izango dira, DKren zuzendaritza organoak hala eskatuta.
8. Espedienteak izapidetzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri- administrazioen ahalmen zehatzailea arautzen duen araudian ezarritakoa hartuko da aintzat.
9. Dena dela, DKren zuzendaritza organoak ustez hutsegitea egin duen pertsona kaleratzeko erabakia hartu ahal izango du zuhurtziaz, bestela zerbitzua egokiro eskaintzeko oztopo izan badaiteke.

6.1. ARAU-HAUSTEEN MAILAKATZEA

Oso hutsegite larriak dira:

- DKren edota beste erabiltzaileen ondasunak lapurtzea.
- Lokaletan, instalazioetan edo materialetan 600 eurotik gorako kalteak eragitea fede txarrez nahiz axolagabekiaz.
- Beste erabiltzaile batzuekiko edo DKren langileekiko begirune falta larria.
- Beste pertsonak erasotzea, mehatxu egitea, eskandaluak sortzea edo pertsonen ohorearen aurkako erasoak egitea.
- Baimen barik grabatzea edo argazkiak ateratzea.
- 3 hutsegite larri berriro egitea.

Hutsegite larriak dira:

- Kirol-instalazioetako edo sarreretako desordena publikoak, jokabidea oso larritzat jotzen ez denean.
- Lokaletan, instalazioetan edo materialetan 240 eta 600 euro arteko kalteak eragitea fede txarrez nahiz axolagabekiaz.
- Beste erabiltzaileekin eta Dk-ko langileekin begirunerik barik jokatzeko, iraintzea, eta ohituren eta usadioen kontrako jarrerak izatea.
- Instalazioetara iruzur eginda sartzea.
- 3 hutsegite arin berriro egitea.



Kirol instalazioen erabiltzaileentzat Araudi Orokorra eta instalazioen erabilera-araudia.

Hutsegite arinak dira:

- Lokaletan, instalazioetan edo materialetan 240 eurotik beherako kalteak eragitea fede txarrez nahiz axolagabekeriak.
- DKren langileen oharrak ez aintzat hartzea, edo gainerako erabiltzaileekin jarrera oker samarra izatea.

6.2. ZIGORREN MAILAKATZEA

Hutsegiteak **mailaketa honen arabera zigortuko dira**:

- Arau-hauste oso larriak direnean, erabiltzaileak erabiltzaile izaera galduko du, eta DKren edozein instalazio erabiltzeko debekua jasoko du. Debekua 6 hilabete eta beti artekoa izan daiteke.
- Arau-hauste larriak direnean, erabiltzaile izaera galduko du, eta DKren edozein instalazio erabiltzeko debekua jasoko du. Debekua 1 hilabetetik 6 hilabetetara artekoa izan daiteke.
- Arau-haustea arina bada, erabiltzaileari DKren instalazioak erabiltzea debekatuko zaio hilabetez gehienez.

Comentario [t6]: "hilabete batetik"

AZKEN XEDAPENAK

LEHENA. Zenbait zerbitzuren erabilera aparte eta zabalago arautu ahal izango da, erabiltzaileek hobeto uler dezaten.

BIGARRENA. Araudi honetan jaso ez diren bestelako kasuak, hasieran, administrazioak interpretatu eta ebatziko ditu.

Araudi hau eta bere moldaketak -indarrean dagoen bitartean gerta litezkeenak- ,lehendabizi, DK-ko Zuzendaritz Batzordeak onartuko ditu, eta gero, Durangoko Udalaren Osoko Bilkurak onartu beharko ditu. Arlo honi lotutako tokiko legediaren arabera tramitatuko da.

Araudi hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean oso-osorik argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarraldi mugagabea izango du.

Araudi hau herritar guztientzat eskuragarri egongo da.



Kirol instalazioen erabiltzaileentzat Araudi Orokorra eta instalazioen erabilera-araudia.

Anexo I

	Landako I		Landako II		Arripausueta	
	EUSK	CAST.	EUSK	CAST.	EUSK	CAST.
Fumar	EZIN DA ERRE INSTALAKUNTZA OSOAN	EL CONSUMO DE TABACO NO ESTÁ PERMITIDO EN TODA LA INSTALACIÓN	EZIN DA ERRE INSTALAKUNTZA OSOAN	EL CONSUMO DE TABACO NO ESTÁ PERMITIDO EN TODA LA INSTALACIÓN	EZIN DA ERRE INSTALAKUNTZA OSOAN	EL CONSUMO DE TABACO NO ESTÁ PERMITIDO EN TODA LA INSTALACIÓN
Alcohol	EZIN DA ALKOHOLA SALDU ETA KONTSUMITU INSTALAKUNTZA OSOAN	LA VENTA/CONSUMO DE ALCOHOL NO ESTÁ PERMITIDA EN TODA LA INSTALACIÓN	SOILIK 20º BAINO GUTXIAGOKO AHOIKOLDUN EDARIAK SALDU ETA KONTSUMITU DAITEZKE	ÚNICAMENTE SE PERMITE LA VENTA/CONSUMO DE BEBIDAS ALCOHOLICAS < 20º	EZIN DA ALKOHOLA SALDU ETA KONTSUMITU INSTALAKUNTZA OSOAN	LA VENTA/CONSUMO DE ALCOHOL NO ESTÁ PERMITIDA EN TODA LA INSTALACIÓN
Comer	JATEA HORRETARAKO ZEHAZTUTAKO EREMUETAN ETA HARMAILETAN DAGO SOILIK BAIMENDUTA, ETA EZIN DIRA JAN INSTALAZIOAK HONDATU EDO ZIKINDU DITZAKETEN ELKAGAIAK (PIPAK, FRUITU LEHORRAK...)	SOLO SE PERMITE COMER EN LAS ZONAS INDICADAS Y EN LAS GRADAS, NO ESTANDO PERMITIDOS AQUELLOS ALIMENTOS QUE PUEDAN DETERIORAR O ENSUCIAR LAS INSTALACIONES (PIPAS, FRUTOS SECOS, ...)	JATEA HORRETARAKO ZEHAZTUTAKO EREMUETAN DAGO SOILIK BAIMENDUTA, ETA EZIN DIRA JAN INSTALAZIOAK HONDATU EDO ZIKINDU DITZAKETEN ELKAGAIAK (PIPAK, FRUITU LEHORRAK...)	SOLO SE PERMITE COMER EN LAS ZONAS INDICADAS, NO ESTANDO PERMITIDOS AQUELLOS ALIMENTOS QUE PUEDAN DETERIORAR O ENSUCIAR LAS INSTALACIONES (PIPAS, FRUTOS SECOS, ...)	JATEA HORRETARAKO ZEHAZTUTAKO EREMUETAN ETA HARMAILETAN DAGO SOILIK BAIMENDUTA, ETA EZIN DIRA JAN INSTALAZIOAK HONDATU EDO ZIKINDU DITZAKETEN ELKAGAIAK (PIPAK, FRUITU LEHORRAK...)	SOLO SE PERMITE COMER EN LAS ZONAS INDICADAS Y EN LAS GRADAS, NO ESTANDO PERMITIDOS AQUELLOS ALIMENTOS QUE PUEDAN DETERIORAR O ENSUCIAR LAS INSTALACIONES (PIPAS, FRUTOS SECOS, ...)

(En Landako II el espacio autorizado para comer es el bar).

	Campo Tabira		Pischna Tabira		Frontón Eskurdi	
	EUSK	CAST.	EUSK	CAST.	EUSK	CAST.
Fumar	EZIN DA ERRE INSTALAKUNTZA OSOAN	EL CONSUMO DE TABACO NO ESTÁ PERMITIDO EN TODA LA INSTALACIÓN	ERRETZAILLENTZAT ATONDUTAKO GUNEAN BAINO EZIN DA ERRE	SOLO SE PERMITE EL CONSUMO DE TABACO EN EL ESPACIO DESTINADO PARA ELLO	EZIN DA ERRE INSTALAKUNTZA OSOAN	EL CONSUMO DE TABACO NO ESTÁ PERMITIDO EN TODA LA INSTALACIÓN
Alcohol	ALKOHOLAREN SALMENTA ETA KONTSUMOA DEBEKATUTA DAUDE INSTALAKUNTZA OSOAN	LA VENTA/CONSUMO DE ALCOHOL NO ESTÁ PERMITIDA EN TODA LA INSTALACIÓN	SOILIK 20º BAINO GUTXIAGOKO AHOIKOLDUN EDARIAK SALDU ETA KONTSUMITU DAITEZKE	ÚNICAMENTE SE PERMITE LA VENTA/CONSUMO DE BEBIDAS ALCOHOLICAS < 20º	DEFINITZEKE DAGO	ESTÁ A FALTA DE DEFINIR
Comer	JATEA HORRETARAKO ZEHAZTUTAKO EREMUETAN ETA HARMAILETAN DAGO SOILIK BAIMENDUTA, ETA EZIN DIRA JAN INSTALAZIOAK HONDATU EDO ZIKINDU DITZAKETEN ELKAGAIAK (PIPAK, FRUITU LEHORRAK...)	SOLO SE PERMITE COMER EN LAS ZONAS INDICADAS Y EN LAS GRADAS, NO ESTANDO PERMITIDOS AQUELLOS ALIMENTOS QUE PUEDAN DETERIORAR O ENSUCIAR LAS INSTALACIONES (PIPAS, FRUTOS SECOS, ...)	JATEA HORRETARAKO ZEHAZTUTAKO EREMUETAN ETA BELARTZAN DAGO SOILIK BAIMENDUTA, ETA EZIN DIRA JAN INSTALAZIOAK HONDATU EDO ZIKINDU DITZAKETEN ELKAGAIAK (PIPAK, FRUITU LEHORRAK...)	SOLO SE PERMITE COMER EN LAS ZONAS INDICADAS Y EN LA HIERBA, NO ESTANDO PERMITIDOS AQUELLOS ALIMENTOS QUE PUEDAN DETERIORAR O ENSUCIAR LAS INSTALACIONES (PIPAS, FRUTOS SECOS, ...)	JATEA HORRETARAKO ZEHAZTUTAKO EREMUETAN ETA HARMAILETAN DAGO SOILIK BAIMENDUTA, ETA EZIN DIRA JAN INSTALAZIOAK HONDATU EDO ZIKINDU DITZAKETEN ELKAGAIAK (PIPAK, FRUITU LEHORRAK...)	SOLO SE PERMITE COMER EN LAS ZONAS INDICADAS Y EN LAS GRADAS, NO ESTANDO PERMITIDOS AQUELLOS ALIMENTOS QUE PUEDAN DETERIORAR O ENSUCIAR LAS INSTALACIONES (PIPAS, FRUTOS SECOS, ...)